

Osoko bilkura

Trebiñun, udaletxean

2019ko maiatzaren 4an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jose Irazu “B. Atxaga”, Joseba Lakarra, Beñat Oihartzabal eta Andoni Sagarna.

Ahalak: Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari (etorri bitartean); Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari.

Batzarra 2019ko maiatzaren 4an, larunbatean, egin da Trebiñun, udaletxean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu, 12:00etan, Trebiñuko Done Petri elizan, Roberto Gon-

zález de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldiaren inguruabarrean egingo den Ageriko bilkurari buruz.

1. Osoko bilkurako (2019-03-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigok aurreko bilkurara hurreratzeko modurik izan ez bazuen ere, bilkura horretan onartutako hiribildu eta hiri hitzen definizioak direla eta, oharra aurkeztu du. Bere ustez, definizio horiek ahalik eta argien zehaztu beharko lirateke, izan ohi diren nahasketak saihesteko. Hori dela eta, bilera-agiriaren 2. orrialdeko 3. puntuaren hirugarren paragrafoaren azken esaldiari iruzkina egin dio, dagoenaren ordezkotako gisa: “Historian zehar agintariek emaniko arau berezi batzuen bidez herri batzuei eman izan zaien titulua, hiri bati emandakoa baino baxuagoa dena”. Halaber, hiri sarreren bigarren definizioari osagarri hau gehitzea ere proposatu du: hiribildu bati emandakoa baino altuagoa dena.

Iritzi desberdinak egon dira eginiko proposamenari buruz. Azkenean, bilera-agiria ez aldatzarekin batera A. Iñigoren oharra lantaldeak aztertzea erabaki da eta lantaldeak egiten duen proposamena hurrengo bilkurara ekartzea.

A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharririk egin nahi den galdetuta, Miren Lourdes Oñederrak zuzenketa bat proposatu du agiriaren 2. puntuan, baina ez da onartu. Bestelako oharririk ez da egin. Ondorioz, 2019ko martxoaren 30eko bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XIV). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.

Zerrenda berria aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak, Andoni Sagarnak eta Miriam Urkiak, hurrenez hurren. Aurkeztutako idatziak A. Iñigok, P. Zabaletak eta M. Azkaratek eginiko oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen ditu.

Eztabaida sortu dute hiru formak. *buruari eman*, idatzizko testuetan dokumentatua ez badago ere, oso arrunta da Nafarroan, eta sartzeko eskatu da. *epaitza* forma

dela eta, hau ere Nafarroan oso arrunta dela eta sartzea komeni dela aipatu da, euskal testuetan jaso gabe badago ere. Eta forma honen Zuzenbideko adiera berrikusteko eskatu da. Azkenik, *ermita* sarrerako definizioa hobeki zehaztu beharra aipatu da.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko ekainaren 10a arteko epea zabaldu da.

3. Exonomastika. Antzinateko artelanen izenak (II): Erromatar Inperioaren garaiko artelanen izenak. Aurkeztu.

Alfonso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak aurkeztu du araugaia. Antzinateko artelanen izenen bigarren partea da, eta Erromatar Inperioaren garaiko artelan nabarmenenak biltzen ditu, 50 inguru. Horietaz gainera, Egiptoko eta Greziako lau artelanen izenak ere aurkeztu ditu, berez jada onartua dagoen 1. parteari gehitzeko direnak.

Izenak eratzeko irizpideak jada onartua dagoen 1. partean emandako berak dira. Ez dago, beraz, alde horretatik ezer berririk. Kasu zehatzei dagokienez, hauek aipatu ditu:

- Gontzaga kameua eta Frantziako Kameu Handia artelan-izenetan kameu hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrera Euskaltzaindiaren Hiztegian, baina nazioarteko hitza da, eta euskaraz erabili da dagoeneko zenbait liburutan (aurkezturiko txostenean datuak jaso dira).
- Karakalaren termak delako arkitektura-lana Karakala enperadorearen garaian eraiki zen. Horregatik, edutezko genitiboa dagokio (noren). Euskaltzaindiaren Hiztegiako terma sarreran Caracallako termetan adibidea ageri da. Batetik, Karakala izena ere arautua dago (76. araua), eta, bestetik, ez dirudi leku-genitiboa (nongo) kasu horretan egokia denik. Horregatik, Exonomastika batzordeak uste du komeni dela adibide hori Karakalaren termak moldean jartzea.
- Borghese kratera artelan-izenean kratera hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrera Euskaltzaindiaren Hiztegian, baina nazioarteko hitza da (ikus datuak txostenean).

- Erdal *le pont Julien / el puente Juliano* artelan-izena euskaraz emateko, aukera bat baino gehiago dago. Zubiaren izenaren jatorria latinezko *Apta Julia* izena da, hori baitzen zubitik gertu dagoen *Apt* hiriaren hasierako izena. Hiria Julio Zesarrek fundatu zuen, eta hortik *Julia*. Exonomastika batzordeak hiru aukera aurkeztu dizkio Osoko bilkurari, erabakitzeko: *Gardeko akueduktua* proposatu den modu bertsuan, *Juliako zubia* egin liteke, (*Apta*) *Julia* baitzen hiriaren izena. Bestela, *-ar* atzizkia erabili nahi izanez gero, *Julio* pertsona-izenari aplikatuta, *Juliotar zubia* litzateke. Azkenik, balegoke *Juliar zubia* aukera ere, baina ez dirudi oso egokia *-ar* atzizkia leku-izenari ezartzea.
- *Hadrianoren villa* artelan-izenean *villa* hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrra *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, baina arkeologiako terminoa da (aurkezturiko txostenean datuak jaso dira).
- *Zirku Maximoa* artelan-izenean *maximo* izena ageri da, eta hitz hori *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sarrra da, baina kategoriaz izena da, eta matematikako adiera besterik ez da ageri. Euskaltermen eta Elhuyar hiztegian, bada izenondoa ere. Eta corpusek erakusten dute izenondo gisa ere asko erabiltzen dela. *Zirku Nagusia* edo *Zirku Handiena* jarriz gero, galdu egingo litzateke “kolorea”. Horregatik proposatzen du batzordeak *Maximoa* jartzea.
- *Veronako Arena* edo *Veronako anfiteatroa* artelan-izenean *Arena* letra larriz idaztea proposatzen da, euskaraz dirudienez ez baita erabiltzen (oraindik, behintzat) anfiteatro edo ikuskizunetarako eraikinaren sinonimotzat (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, bai). Bestela, izen arrunt gisa erabiltzen bada, hiztegian jaso behar litzateke eta letra xehez idatzi.
- *Basilika zisterna* artelan-izenean *zisterna* hitza ageri da, eta hitz hori ez da sarrra *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, baina nazioarteko hitza da, eta corpusetan eta hiztegietan erabiltzen da. Horregatik, *zisterna* proposatu du batzordeak. Bestela, *biltegi* edo *ur-biltegi* erabili behar litzateke, baina termino horiek polsemikoagoak dira.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da ekainaren 10a arte.

4. Esku artekoak.

4.1. Txomin Solabarrieta ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. 91 urte zituela zendu da Solabarrieta, Begoñan (Bilbon). Ondarroan (Bizkaia) jaio zen, 1927an. Abade egin ondoren, euskararen sustatzailea izan zen Solabarrieta Bizkai-ko parroketan, eta elizbarrutiko itzultzaile ofiziala ere bai. Adorez taldeko kide gisa, hamabost hiztegiren argitalpenean parte hartu zuen. Halaber, aparteko lana egin zuen ondarroarrak itsas munduko lexikoa taxutzen, sinonimoak aukeratzen nahiz egokitzen, eta, batez ere, Aditz Hiztegirako milaka esaldi prestatzen. Ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2018ko apirilaren 27an.

Hilberri-txostena Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainak paratuko du.

4.2 Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Biltzar Nagusia. Maiatzaren 2an egin zen Hazparden, Eihartzea kulturgunean. Bertan urteko bilana, 2018. urteko aurrekontuaren itxiera eta 2019ko aurrekontua aurkeztu eta onartu ziren.

4.3. Eusko Jaurlaritzaren EIMA egitasmoko Isabel Arrigain Euskara Batuaren Eskuliburuko batzordekide. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz, Zuzendaritzak Isabel Arrigain EBEko batzordeko kidea izatea erabaki du.

Osoko bilkura jakitun geratu da.

4.4. Aldaketak egutegian. 2018ko azaroaren 16an, XXIV. Jagon jardunaldia Iruñean egitea erabaki bazen ere, Sustapen batzordeak erabaki du jardunaldi hori Bilbon, azaroaren 14 eta 15ean (ostegun eta ostiralean) egitea.

Jorratuko den gaia: euskara eta lan mundua.

4.5. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak.

Koldo Mitxelena Sariak. Sariak emateko ekitaldia maiatzaren 8an egingen da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Bertan parte hartuko dute, besteak beste, A. Urrutia euskaltzainburuak eta Nekane Balluerka EHUKo errektoreak.

Saridunak, berriz, ondokoak dira:

- Asier López Eiguren (Zientziak).
- Olatz Pérez de Viñaspre Garralda (Ingeniaritza eta Arkitektura).
- Mikele Macho Aizpurua (Osasun Zientziak).

- Juan Mari Aguirreurreta Elosegui (Gizarte eta Lege Zientziak).
- Miren Ibarluzea Santisteban (Artea eta Giza Zientziak).

Elkar Fundazioaren "Ibilbideari" saria Euskaltzaindiari. Saria emateko ekitaldia maiatzaren 9an egingo da, Andoaingo Bastero kulturgunean. Joan nahi duenak izena ematea komeni da.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Maiatzaren 16an eta 17an, "Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena. Eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak. Euskaltzaindiaren nazioarteko jardunaldia" egingo da. Behin betiko egitaraua aurkeztu ondoren, hurreratu eta ostatua behar duten euskaltzainen zerrenda osatu da.

Hurrengo Osoko bilkura Baionan egingo da, Herriko Etxean, ekainaren 28an, ostiralean, 10:00etan.

5. Azken ordukoak.

Patxi Zabaleta euskaltzainak 2019ko Coppieters saria jasoko du, bide demokrati-koen eta baketsuen alde eginiko langintzan erakutsiriko lidergoa azpimarratzeko asmoz. Saria udazkenean jasoko du Bruselan egingo den ekitaldi batean. Osoko bilkurak aipaturiko saria jasotzeagatik zorionak eman dizkio P. Zabaletari.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:50ean.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Ageriko bilkura

Roberto González de Viñaspre euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Trebiñun, Done Petri elizan

2019ko maiatzaren 4an

Trebiñuko Done Petri elizan, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Patxi Uribarren euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2018ko otsailaren 23ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Roberto González de Viñaspreren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain urgazleak: Asier Bidart, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Martínez de Luna, Alfontso Mujika, Paskual Rekalde eta Luis Mari Zaldua.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Elena Ramírez Trebiñuko alkatea eta zinegotziak; Roberto Ortiz de Urbina Argantzongo alkatea; M^a Pilar García de Salazar Olano Arabako Foru Aldundiko

diputatu nagusiordea; Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua; Joseba Koldo Pérez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Joseba Lozano, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

Unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako ordezkariek.

Ibon Usarralde Euskaltzaindiko Egitasmoen bateragilea eta Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria.

Roberto González de Viñaspreren familiakoak eta lagunak.

Ekitaldiari hasiera eman aurretik, Argantzun dantza-taldeak Ikurrin dantza eta agintariena dantzatu du Trebiñuko plazan. Ondoren, ekitaldira hurreratu diren guztiak Done Petri elizara sartu dira. Jarraian, Erramun Osa idazkariordeak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindiko Barne-erregiek sarrera-hitzaldiaz diotena irakurri du.

Idazkariordearen hitzen ostean, Elena Ramírez Trebiñuko alkateak halako ekitaldi bat Trebiñun egiteagatik poza agertu eta zorionak eman dizkio Roberto González de Viñasprei.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste, ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren, Patxi Uribarren Roberto González de Viñaspreren hautagaitza aurkeztu zuenetariko bat eta azken sarrera-hitzaldia egin duen Miriam Urkia euskaltzain osoa deitu eta euskaltzain berriaren bila joan daitezen eskatu die. Bi euskaltzainek lagunduta sartu da batzar aretora Roberto González de Viñaspre “Trebiñu, euskararen herrian” izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Patxi Salaberri euskaltzainak eman dio erantzuna.

Sarrera-hitzaldiaren mamiari heldu baino lehen, herritarrak agurtu ditu González de Viñasprek, bertan izandako bizipenak gogoratu dituela: “Gogobetegarri dut sarrera-hitzaldia bihotz-buruak agintzen didan lekuan irakurtzea, non eta bizialdien erdia baino gehiago eman dudan lurrian, trebiñarren aurrean, eta euskaraz”. Done Petri elizaren pisua eta garrantzia ere azpimarratu ditu, eta berbaldian saiatu da erakusten elizako hormak trebiñarren euskarazko mintzoaren lekuko izan direla, “harik eta Ihuda ibaiak bustitzen duen arroan XVI-XVIII. mendeetan barrena

euskal hizkuntza galdu arte”.

Patxi Uribarren euskaltzain emerituaren ibilbide garrantzitsua ere aletu du, aramaioarraren eginak eta gogoak errepasatuz: “Bizitzako urte asko eskaini dizkio arima-arimatik maite duen euskarari”. Hala, gogoratu du Uribarrenek frankismoaren “urte latzetan” Santutxuko gau-eskoletan eginiko lan itzela, eta, nola ez, Euskaltzaindian eginikoak: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, euskalkiekin, euskararen sustatzean eta abar. “Onomastikari ere ekin dio bere ikerketa ibilbidean –azpimarratu du González de Viñasprek–. Gogoratu behar da Filologia Erromanikoaren lizentzia eskuratu zuela 1974an Aramaioko toponimiari buruzko tesi lanarekin, Mitxelenaoren zuzendaritzapean egin zuena”. Horrez gain, *Bostak bat* taldean karmeldarrak hiztegegintzan egindakoak ere aipatu ditu.

Nahitaezko esker eta aipuen ostean, bere hitzaldiko gai nagusiari heldu dio “Bilbon jaiotako arabarrak”. Horretara, Trebiñuko historiari eta kulturaz jardun du, eta gogoratu du euskara ere trebiñarren ondarea dela: “Gaztelaniak antzinako presentzia du lurralde honen sartaldean, eta ausaz elebitasun-egoera luzea izan da Trebiñu Konderriko beste zenbait ingurutan. Dena dela, euskara ere trebiñarren kultura ondarea da, berezko errealitate linguistikoa, egiaztatuko dugunez”.

Euskal toponimia eta euskararen hedapen-muga historikoak bere biografiarekin uztartu ditu González de Viñasprek, helburu jakin batekin: “Gazte-gazterik atentziora eman zidan euskal itxurako zenbat leku-izen ziren Lagranen. Deigarria egiten zitzaidan hura, nire ezjakinean uste bainuen sekula ez zela euskararik mintzatu Arabako hegoalde horretan. Toponimiak erakusten duen bestelako errealitateak, ordea, jakin-mina piztu zidan. Zer-nolakoa zen Arabako arbasoek aho-mintzoan zerabilten euskara? Noiztsu galdu zen? Garai hartan sortu zitzaidan euskal hizkuntzarekiko interesa, motibazio horrekin”.

Euskararen grina piztuta, hamabost urterekin hasi zen euskara ikasten Roberto, bere kabuz (Xabier Peñaren *Euskal irakasbide laburra* liburuarekin), ordutik batera eraman dituela “euskararekiko eta toponimiarekiko jakin-nahia, eta bereziki Arabakoa”. Trebiñu Konderriko Saseta herrian erroto zen Robertoren familia, eta euskaltzainak 30 urte eman ditu bertan, hango historia linguistikoa ikertzen, toponimiaren bitartez, batez ere. Honela, kontu bitxiak ondorioztatu ditu, esaterako, euskararen desagertzea noiz gertatu zen: “Trebiñu Konderriko ekialderako ditugun datuek iradokitzen dute euskararen transmisioaren etena XVIII. mendeko lehen erdian zehar gertatu zela”. Hala ere, Konderriko “ekialdean agerikoa da gaur

egun euskarazko leku-izenen presentzia. (...) Erditik gora dira oraindik, itxuraldaketak gorabehera, jatorriz euskaraz sortutako toponimoak. Maizago eta osoago agertzen dira XVIII. mendeko dokumentuetan; euskal izen arruntik ere aurkitu ohi da gaztelaniazko testuetan txertatuta”. “Oraindik euskal hitz hondarrik bilatu daiteke Trebiñu Konderriko lexikoan” —ohartu du González de Viñasprek— “testu zaharrak arakatuz; nekezago hiztunen ahotik, bizimodu tradizionalarekin gertatu den hausturagatik eta herri kulturaren galeragatik”.

Atzera eginez, XVI. mendean aurkitzen dugu euskara hizkuntza mintzatua zeneko lekukotasunik, Trebiñu Konderriko ekialdean. “Ihuda ibaiaren goi-arroan XVI. mendearen bigarren erdian euskaraz hitz egiten zela jakin dugu. Toponimia historikoak berresten du euskara hemen zegoela garai horretan, eta XVIII. mendearen erdira arte iraun zuela ere”, argitu du Euskaltzaindiko Arabako ordezkariak, esanez uste duela Trebiñu Konderriko “ekialde gehienera zabaldu daitekeela egoera bertsua”.

“Guztiarekin ere, euskararen historia ez da berdin igaro Trebiñu Konderri osoan. (...) Lurraldearen sartaldeko muturrean ia ez dago euskal leku-izenen aztarrenik; bai, ordea, hortik ekialdera. Dokumentazioaren argitan, euskararen gehieneko hedapen historikoa Ozilla-Ladrera, Añastro, San Esteban eta Morgas herrien lerrotik bide zihoan, iparraldetik hegoaldera, herri horiek guztiak barne hartuz”, zehaztu du González de Viñasprek.

Bere ustez, “XVI. menderako galdua zen euskara mendebaleko herri gehienetan, eta galera Trebiñu hiribururaino iristen bide zen”, ohargarria baita “euskal izen ugari ematen dituela Trebiñurekin mugakide diren Arrieta, Askartza, Bustu, Dordoniz, Golernio eta Franku herrietan. Eta bereziki nabarmentzekoa da Trebiñu herriko mugapean ere badirela euskarazko izen ugari; batzuk bizirik iritsi dira gaur arte; beste batzuk bidean galdu dira”.

Honela, urte hauetan guztietan eginiko ikerketen eskutik, euskaltzainak ondorioztatzen du “euskara Trebiñu Konderriko kultura ondarearen ezinbesteko osagai dela”, eta “ageriko errealitate linguistikoa da iraganean ez ezik orainean ere”, eta amaitu du esanez “euskararen geroa, komunikaziorako hizkuntza-sistema bezala, euskaldunok erabiliz ematen dioguna” izango dela, “baita Trebiñuko barrendegian” ere.

Roberto González de Viñaspreren mintzaldiaren ostean, Patxi Salaberri euskaltzainak arrapostu egin dio González de Viñaspreren berbaldiari, modu bertsuan egin ere, hots, bere jatorria toponimiarekin eta euskararekin uztartuz. “Uste dut

euskal izenek ekarri gintuztela euskararen mundura bai Roberto eta bai ni, adin bertsuan, gainera”, aitortu du Salaberrik: “Robertok bere buruari egiten zizkion galderak eta nik neureari egiten nizkionak ere paretsukoak dira: nolakoa zen hemengo hizkera? Non zegoen hizkuntza muga? Noiztsu lekutu zen euskara hemendik?”. Eta galdera horren hariari jarraiki ibili dira biak hango eta hemengo toponimia bilatzen eta ikertzen: Robertok Arabari heldu dion bitartean, Patxik Nafarroari oratu dio, bere arbasorik gehienak uxuetarrak baitziren (bitxikeria bat kontatu du: Uxueko dokumentazioan, 1629an ageri da lehen aldiz Salaberri deitura). Honela, Salaberrik argitu du euskararen lehen aztarnak —idatziak, bederen— XVI. mende-koak direla: “Uxuen ez dugu halakorik egin esaldia dugu 1581ean (Monteano, 2017: 178), eta ondoko pasarte hau 1598an: *alcabuz aldirateta arcabuzas es, estiot arcabuzau emanen, estate gure probechu arcabuzetara etorri bagajtes*”. Eta edozenbat adibide eman ditu ondoren, luze-zabal aritu dela horretaz.

Salaberrik amaitu du esanez berak badakiela “gauza bana direla onomastika eta euskara *arrunta*”, baina badakiela, baita, “toponimian edireten ditugun gauza asko euskara bizirik egon den azken denboretako lekuan lekuko hizkeraren ezaugarriak direla, orain ikusi dugun bezala, fidagarriak, lurrari atxikirik daudelako”. Eta aztarna horiek guztiak “aintzat hartu behar lirakeela” adierazi du, “hein batean segurik, bai Araban (‘zazpigarren alaba’, Gorka Knörren kantuan) eta bai Nafarroan”. Bere erantzuna amaitu du Robertori goresmenak eskainiz, “Onomastika arlo izugarri polita baita, lantegi ikaragarria Euskaltzaindian”. “Baduzu non josta”, ohartarazi du.

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Roberto González de Viñasprei.

Segidan, Gasteizko Kanta Berri abesbatzako kideek hainbat kanta kantatu dituzte. Ondoren, ekitaldiari amaiera eman aurretik, A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Hasteko, Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso izendatu berriari zorionak eman dizkio. Era berean, halako izendapenak, ohoreaz haratago, lan egiteko gonbita direla aditzera eman du. Era berean, Araban, oro har, euskarak izan duen aitzinamendua goratu du, eta bereziki azpimarratu du Trebiñu Konderrian euskararen alde eginiko lan handia. Bide beretik sakontzeko deia ere egin du. Halaber, Euskaltzaindiaren Mendeurrena gogoan, arabar euskaltzainek,

osoek, ohorezkoek eta urgazleek, ehun urtean egin duten ekarpena, egin duten lana eta erakutsitako konpromisoa gogorarazi ditu. Amaitzeko, euskararen aldeko langintzak etenik ez duela eta, urrats berriak egiteko deia egin du.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat eman ondoren, Elena Ramírez Trebiñuko alkatetik, Udalaren izenean, opari bat eman dio Roberto González de Viñaspre euskaltzainari.

Ostean, txistularien musika lagun dutela, ekitaldian parte hartu dutenak Done Petri elizatik irten eta Udalak eskainitako ahogozagarrari arinaz gozatu ahal izan dute, ekitaldiari amaiera emanez, 14:00etan.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana,
Idazkaria